



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 21a

71. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Gipuzkoako Diputazioak bidesariak ezar ditzan N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betetze aldera hartutako erabakia defendatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, nazioko gobernuak premiatzen da mantentzen dituzten Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio bat lor dezan Zaraitzuko Batzarrarekin, Abodiko eski-zentroko lanak jarraitu eta amaitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amai ditzan Abodiko eski-zentroko obrak. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegiaren segurtasuna mantentzeko neurriak har ditzan, informazio gardentasunez joko dezan ukituriko herritar eta udalekin eta larrialdi plan bat diseina dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Sakanako udalak animatzen dira susta dezaten eskualde horretako garapen sozioekonomikoa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuetan mantentzen dezan “Emakumeen elkarlanean transferentziak” izeneko kontusaila. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan zenbait funtzionario taldek erabili ondoren orain hutsik dauden Foru Gobernuaren jabetzako 150 etxebizitzak erabilera soziale-rako. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz ekin diezaien Espainiako Gobernuare-kiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trena egiteko beste hitzarmen bat sinatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geldiaraz ditzan Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako tartean egiten ari diren lan guztiak. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruaren dimisioari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Ikerketa batzordea, zehaztekoa Nafarroako Kutxako buruzagiek eta Administrazio Kontseiluko arduradunek hartutako zein erabaki izan diren egungo egoera sortu dutenak, bai eta prozesu osotik eta eginiko abusuetatik eratorritako erantzukizun politikoak ere. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Irabazi-asmorik gabeko 42 entitatek osatzen dute Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea –elkarteak, GGKEak, laneratze eta gizarteratze zentroak eta enpresa solidarioak–, zeina 2003tik ari den Nafarroan ekonomia solidarioa sustatzen. Sareak harremanak sendotu eta ikuspuntu ezberdinak sortzea bilatzen du, alternatiba ekonomiko posibleak, errealak, iraunkorrak eta solidarioak erraztu eta sustatzeko, gizakiarekin, gizaratearekin eta planetarekin.

Ekonomia solidarioa sortu da erantzun bat eman behar izatetik ekonomiaren gizadasun-galtze gero eta handiagoari, ingurumenaren eta bizi kalitatearen narriadurari, eta egungo gizaratean balio etikorik ez egoteari. Pobrezia areagotzea eta

gizarte desberdintasunak –zeinek bereziki eragiten baitiete emakumeei–, bazterketa sozial eta ekonomikoa, langabezia eta kolokako enplegua, nabarmen biderkatzen dira krisi egoera honetan, erronkak sortzen dituzte eta horrenbeste gabezi eta narriadurek erantzunak eskatzen dituzte. Egin-kizun nagusia, hortaz, ekonomia solidarioa bultzatzea da, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat garatu ahal izateko tresna gisa.

Bestalde, ematen du beharrezkoa dela Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren osaera egokitzea Nafarroako gizaratearen errealitate berri eta indartsuei; esate baterako, Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareari.

Lehenengo artikulua. 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. “Hogeita zortzi kide” jartzen duen lekuan “hogeita hamar kide” jarriko du.

Bigarren artikulua. 2. artikuluko 1. idatz-zatiari e) letra berria eranstea.

“e) Bosgarren taldeak Foru Komunitateko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sektoreko bi kide izanen ditu.”

Hirugarren artikulua. 2. artikuluari 5. bis idatz-zatia gehitzea.

“5. bis. Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak izendatuko ditu Bosgarren Taldearen izenean kontseiluko kideak izanen direnak”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala emateko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak

aurkeztu zuen, eta 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Foru Lege proposamen hau: "ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekital-

dietarako". Proposamen hori Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkeztu zuten, eta 2013ko maiatzaren 13ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2013ko apirilaren 15eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak 2013ko ekainaren 19an eta 20an egindako bileretan onetsia.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeak arau-esparru propio bat ezarri zuen, basa faunaren parte baten aprobetxamenduari dagokionez, eta Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aplikatu den hamar urteotan pilotutako esperientzia jaso zuen.

Foru lege honek ezartzen duen gauzarik garrantzitsuenetariko bat da nortasuna aitortzen zaiola barrutien titularrek egindako kudeaketari, eta murriztu egiten duela Foru Komunitateko Administrazioaren esku-hartzea. Halatan, foru lege honek kudeaketa partekatua beren gain hartzeko aukera ematen die toki entitateei, ehiza aprobetxamenduak erabiltzeko aukerak emanda. Horrela, baliabide horren aprobetxamenduaren izaera soziala azpimarratzeko ala tokiko garapen sozio-ekonomikorako bide gisa erabiltzeko erabakia udal eremuan geratuko litzateke, toki entitateak hori nahi izanez gero.

Abenduaren 28ko 17/2005 Foru Legearen garapenak eta aplikazio praktikoak agerian jarri dute zenbait alderdi berrikusi beharra dagoela, egungo beharrezanean erantzunen bazaie.

Alde batetik, ika-mika eragin du ehiza-barrutietan zaintza sistema bat egon beharrak, zeina foru legean jasotzen baita eta erregelamenduaz ezartzen denari jarraikiz aurtengo otsailetik aurrerako indarraldia baitauka.

Beste alde batetik, badira egokitu beharreko beste zenbait alderdi ere; adibidez, ehiza-barruti bat eratzeko eskatzen den gutxieneko azalera, barruti intentsiboen berezitasunak edo zehapen-jarduna.

Artikulu bakarra. Honela aldatuko da Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea:

Bat. 16. artikulua aldatzen da, idatz-zati berri bat gehituta, hirugarrena:

"3. Aprobetxamendu trinkoko barruti berezi horietan, barrutia eratzea baimentzen duen ebazpenak jasoko ditu barrutiaren titularraren eta aprobetxamenduaren titularraren betekizunak".

Bi. 18. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

2. Ehiza-barruti bat eratzeko exijitutako gutxieneko azalera aldatu ahalko da, salbuespenez eta aldez aurretik administrazioak baimena emanda, honako kasuetan:

a) 2.000 hektarea baino gutxiago dituzten toki barrutiak sortu ahalko dira, herrian horretarako behar adinako azalera izan ez eta 15 hektareatik beherako azalera badago herriko bizilagun den ehiztari bakoitzeko.

b) 1.000 hektareatik gorako tokiko barrutiak eratu ahalko dira, baldin eta ehiza larria bada aprobetxamendu nagusia eta barrutiaren kudeaketa zuzenean egiten badu toki entitate titularrak, edo enkante bidez egiten bada".

Hiru. 20. artikuluko 2. idatz-zatiko e) letra kentzen da.

Lau. 21. artikuluko 1. idatz-zatiaren b) letra aldatzen da. Hona testu berria:

"b) Arestiko artikuluko lehenengo idatz-zatiko a) eta b) letretan eta artikuluko bereko bigarren ida-

tz-zatiko a), c) eta h) letretan ezarritakoa betetzea, aprobetxamenduaren esleipenean ezartzen diren termino eta baldintzetan".

Idatz-zati berria. 21. artikuluari idatz-zati berri bat, hirugarrena, gehituko zaio:

"3. Ehiza barrutiaren aprobetxamenduaren parte bat egiten badute ehiza aprobetxamenduaren titularrek emandako aldi baterako baimenak dituzten pertsonak, titular horiei dagokie aldi baterako baimenak (txartelak) ematean eta erabiltzean ahalik eta gardentasun handiena egon dadin zaintzea. Horretarako, ehiza aprobetxamenduaren titularrak barrutiaren titularrari jakinarazi beharko dizkio aldi baterako baimen horien kopurua eta zenbatekoak".

Bost. 33. artikulua aldatzen da. Debekualdie buruzko xedapen orokorra. Idatz-zati berri bat gehitzen da:

"4. Barruti intentsiboetako ehiza aprobetxamendua barrutiaren ehiza antolamenduko planean ezarritakoaren arabera egingen da".

Idatz-zati berria. Beste lerroalde bat gehituko zaio 34. artikuluko 2. idatz-zatiari.

"Ehiza-espezieen aleak askatzea aurreikusituz duten barrutien ehiza antolamendurako planetan, jaso beharko dira, halaber, honako hauek bermatzeko neurriak: askatuko diren animalien egokitasun genetikoa eta osasungarritasun kalitatea, eta barrutiko ingurumen balioak mantentzea".

Sei. 51. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

"51. artikulua. Zaintza.

Edonola ere, barrutiak ehiza-zaintzako sistema bat eduki beharko du ondoko jarduerak egin ahal izateko:

a) Salbuespeneko ehiza-baimenak betetzea, bai 39. artikuluan jasotako metodoak erabiltzeagatik, bai ohiko ehiza-denboralditik kanpo egiteagatik.

b) Populazioak maneiatzea, horretan barne askatzea, berriz sartzeta eta translokazioak. Edonola ere, ehiza espezieak berriz sartzeta baimendu denean, eta espezie horiek ehizatzea debekudenen denboran, eta barrutiak bestelako espezieak ehizatzeak aukera ematen duenean.

c) Oreinak eta orkatzak zelatan ehizatzea.

d) Ehizaldiak eta monteriak, behar diren segurtasun prozedurak kontrolatzeko asmoz.

Basurde-ehizaldietan, ehiztariak hogeitau baina gehiago badira, nahitaezkoa izanen da ehizazain

bat kontratatzea. Derrigorrezkoa izanen da ehizazaina barrutian egon dadin ehizaldia iraun bitartean.

e) Populazioen urtealdi-kontrolak.

f) Kudeaketa okerrarengatik edo pozoia eta amu pozoituak jartzeagatik edo lege indardunek debekatzen dituzten gai toxikoak erabiltzeagatik barrutia osorik edo zati batean itxi denean, administrazio edo zigor espediente bat edo kautelazko neurri bat betetzeko. Kasu honetan ehizazaina barrutian egonen da, bertan egiten den lehen ehiza-gara gauzatua bukatu arte.

g) Erregelamenduz gara daitezkeen bestelakoak".

Zazpi. 89. artikulua 1. idatz-zatia aldatzen da. Arau-hauste oso larriak. Hona testu berria:

"1. Pozoiak eta amu pozoituak jartzea eta lege indardunak debekatutako substantzia toxikoak erabiltzea".

Zortzi. 89. artikulua aldatzen da. Arau-hauste oso larriak. Idatz-zati berri bat, hirugarrena, gehituko da:

"3. Ehiza-espezieak baimenik gabe sartzeta edo askatzea edo baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea".

Idatz-zati berria. Xedapen gehigarri berri bat gehituko da.

"Zazpigarren xedapen gehigarria. Espezie jakin batzuk askatzeko baimena.

Baimendu ahalko da eper gorria, erbi europarra eta mediterranearra eta untxia askatzea, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan.

Ehizaren arloan eskumena duen Departamentuak baldintza horiek garatuko ditu, gehienez ere hemezortzi hilabeteko epean".

Idatz-zati berria. Xedapen gehigarri berri bat gehituko da.

"Zortzigarren xedapen gehigarria. Arau-haustek jakinaraztea.

Nafarroako ehiza barruti publikoetako ehizazainek salatzen dituzten Foru Lege honetan xedatutakoaren aurkako arau-haustek, ehizaren arloan eskumena duen Departamentuari helaraziko zaizkio, bai eta barrutiaren titularraren den toki entitateari eta ehiza-aprobetxamenduaren titularrari ere".

Azken xedapen berria. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Gipuzkoako Diputazioak bidesariak ezar ditzan N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Gipuzkoako Diputazioak bidesariak ezar ditzan N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eledun Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Nafarroako

Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Duela gutxi, Gipuzkoako Diputazioak iragarri du bidesaria kobratuko duela Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituzten bide nagusiak erabiltzeagatik. Bidesaria derrigorrezkoa izanen da N-1eko puntu batean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean.

Komunikazio-bide horiek Nafarroako eta Euskadiko administrazioen adostasunarekin egin zirela kontuan hartuta, ez dirudi bidezkoa denik baldintza horiek aldebakartasunez aldatzea. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Gipuzkoako Diputazioak bidesariak ezar ditzan N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Foru Komunitateari eragiten dion komunikazio-bideen edozein aldaketa egiteko beharrezkoa dela administrazio eskudunen arteko akordioa.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Eleduna: Carlos García Adanero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betetze aldera hartutako erabakia defendatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betetze aldera hartutako erabakia defendatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betez hartutako erabakia defendatzeko".

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da manten ditzan Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da manten ditzan Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak nazioko Gobernua premiatzen du:

1. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari

buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen printzipio inspiratzaileak mantentzera.

2. Legearen jatorrizko testuan jasotako ezagupen-egutegira itzultzera.

3. Bertan behera uztera uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan sartutako aldaketak.

4. Behar adinako finantzaketaz hornitzera mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko eta haiei laguntza emateko sistema, hitzartutako mailari, eta gutxieneko mailaren zenbatekoa igotzeari dagokiona barne".

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio bat lor dezan Zaraitzuko Batzarrarekin, Abodiko eski-zentroko lanak jarraitu eta amaitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio bat lor dezan Zaraitzuko Batzarrarekin, Abodiko eski-zentroko lanak jarraitu eta amaitzeko"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du akordio bat lor dezan Zaraitzuko Batzarrarekin, jarraitutasuna emate aldera, bukatu arte, Abodiko eski zentroan egiten ari diren obrei, eta eski zentroa oinarrizko azpiegiturekin hornitze aldera, bere jarduera egin ahal izateko"

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amai ditzan Abodiko eski-zentroko obrak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amai ditzan Abodiko eski-zentroko obrak"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du akordio bat lor dezan Zaraitzuko Batzarrarekin, jarraitutasuna

emate aldera ibarraren eta Nafarroa osoaren onerako den proiektu horri.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar den dirua jar dezan behin akordioa lortuta eta, kasua bada, proiektua berrikusita, 2013ko eta, hala behar bali-tz, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan, obra hori bukatu ahal izateko eta eraikina baldintza egokietan irekitzeko, herritarrek oro har eta Nafarroako ikasleek bereziki, baliatu ahal izan dezaten"

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urte-gian segurtasuna mantentzeko neurriak har ditzan, informazio gardentasunez joka dezan ukituriko herritar eta udalekin eta larrialdi plan bat diseina dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urte-gian segurtasuna mantentzeko neurriak har ditzan, informazio gardentasunez joka dezan ukituriko herritar eta udalekin eta larrialdi plan bat diseina dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi nahi die kaltetutako esatarrei, beren etxeak utzi behar izan baitituzte ustekabea, jakin gabe ea noiz eta zer baldintzatan itzuli ahalko diren horietara.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren menpeko administrazioak premiatzen ditu –Landa Garapeneko Departamentua, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Departamentua, Sustapeneko Departamentua eta Nafarroako

Larrialdietako Agentzia–, bai eta Espainiako Gobernuaren menpekoak ere –Sustapen Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa–, beti gardentasunez informa diezaieten ukitutako bizilagunei eta urtegiko uretan behera dauden herrietako udal agintariei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, egungo presaren segurtasuna mantentzeko, urtegitutako urak hein batean husteraino, beharrezkoa balitz, kota seguru batera iritsi arte.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Esako, Xabierko, Ledea, Zangozako, Galipentzuko eta Kasedako udalak premiatzen ditu larrialdi planak egin eta taxutu ditzaten Esako urtegiarentzat; larrialdi planek herritarrentzako informazio egokia, ebakuazio-sistemak eta abar hartzen dituzte barne.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Sakanako udalak animatzen dira susta dezaten eskualde horretako garapen sozioekonomikoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Sakanako udalak animatzen dira susta dezaten eskualde horretako garapen sozioekonomikoa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak animatzen ditu:

1. Sakanako udalak eta Sakanako Mankomunitatea eragile aktibo eta positibo izan daitezen

eskualdearen garapen instituzional, politiko, ekonomikoa, laboral eta sozialerako.

2. Sakanako udalak eta Sakanako Mankomunitatea lehentasuna eman diezaiten beren aurrekontuetan eta jarduketetan enplegua sortzeari, enpresaburuak babesteari eta ekintzaileak bultzatzeari.

3. Sakanako udalak eta Sakanako Mankomunitatea atzerapenik gabe bultza eta tramita ditzaten, araudia betez betiere, eskualdearen ehundura industrial eta ekonomikoa modernizatzea, berritzea eta zabaltzea dakarten proiektuak.

4. Nafarroako Gobernua, Sakanako udalak eta Sakanako Mankomunitatea elkarriketa iraunkor

eta trabagabea izan dezaten, aukera egon dadin entitate publikoek eskualdean egiten dituzten politikak egokitzeko bertako biztanleen beharretara, halako moduz non ziurtatuko baita arlo guztietan emanen direla kalitatezko zerbitzu publikoak”.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuetan mantentzen dezan «Emakumeen elkarteentzako transferentziak» izeneko kontusaila.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuetan mantentzen dezan «Emakumeen elkarteentzako transferentziak» izeneko kontusaila.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2013ko aurrekontuetan mantentzen dezan «Emakumeen elkarteentzako transferentziak» izeneko kontusaila eta 150.000 euroekin

horni dezan, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea betetze aldera; izan ere, foru lege horren arabera, Nafarroako Gobernuak eta bere menpeko erakunde eta entitateek konpromisoa dute elkartegintza generoko berdintasunaren mesedetan sustatzeko eta alor horretan lan egiten duten elkartei laguntza ekonomikoa emateko.

Gobernuak konpromisoa hartzen du kontusail horretako diru-laguntzetarako deialdia albait lasterren onesteko”.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan zenbait funtzionario taldek erabili ondoren orain hutsik dauden Foru Gobernuaren jabetzako 150 etxebizitzaren erabilera sozialerako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan zenbait funtzionario taldek erabili ondoren orain hutsik dauden Foru Gobernuaren jabetzako 150 etxebizitzaren erabilera sozialerako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat aurkez dezan, toki entitateekin koordinatuta, zenbait funtzionario taldek erabili ondoren orain hutsik dauden Foru

Komunitatearen jabetzako 150 etxebizitzaren erabilera sozialerako. Plana aurkeztu aitzin, Nafarroako zenbait herritan dauden kasuko etxebizitza horietako bakoitzari buruzko azterketa tekniko xehakatu bat egin beharko da, eskuragarritasunaren eta bizigarritasun-egoeraren gainekoa.

2. Aipatu plana sei hilabeteko epean aurkeztu beharko da, eta kontuan hartuko ditu kasuko etxebizitzak dauden herrietan etxegabetutako pertsonen etxebizitza-beharrak zein diren. Horretarako, aintzat hartuko da bai toki entitateen bai etxegabeteen aurkako gizarte taldeen iritzia".

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trena egiteko beste hitzarmen bat sinatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trena egiteko beste hitzarmen bat sinatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Gobernuari exijitzea berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei,

Sustapen Ministerioaren bidez, Prestazio Handiko Trena egiteko epeen kronograma bat jasoko duen beste hitzarmen bat sinatzeko, aurreko proiektua lehenago aurreikusitako moduan mantentze aldera, Nafarroak jarrai dezan Zaragoza eta Euskal Y-aren arteko Pirinioetan zeharreko Oinarrizko Sarean, gure ustez hori baita gure Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta industrialerako aukerarik onena".

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geldiaraz ditzan Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako tartean egiten ari diren lan guztiak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geldiaraz ditzan Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako tartean egiten ari diren lan guztiak."

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruaren dimisioari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, adierazi zuen jakinararen ganean zegoela María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari zegokionez. Galdera, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Informazioaren Ataleko buruaren

dimisioari buruzkoa, 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ikerketa batzordea, zehaztekoa Nafarroako Kutxako buruzagiek eta Administrazio Kontseiluko arduradunek hartutako zein erabaki izan diren egungo egoera sortu dutenak, bai eta prozesu osotik eta eginiko abusuetatik eratorritako erantzukizun politikoak ere.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 13an egindako bileran, baztertu du Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako eskaria, ikerketa batzorde hau eratzekoa: "Ikerketa batzordea, zehaztekoa Nafarroako Kutxako buruzagiek eta Administrazio Kontseiluko arduradunek hartutako zein erabaki izan diren egungo egoera sortu dutenak, bai eta proze-

su osotik eta eginiko abusuetatik eratorritako erantzukizun politikoak ere".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

